

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Baliabide fisikoak

- Bilketatik lortzen ditugun lehengaiak, elkarte handien eskutara eraman aurretik, gordeta edukitzeko herriko almazen bat izango dugu erabilgarri. Almazen hau gure taldekide baten familiako kide batena da eta pare bat urte utsik daramanez guri uztea erabaki du. Gune hau erabiltzeagatik alkiler txiki bat ordaindu beharko diogu beraz, irabazietatik gordetzen dugun diru kopuru txiki hori honelako gastuetarako erabiliko dugu. Momentuz urtebetez gure eskutan izango dugu lokala, eta ez da beste inoren eskuragarri ez salgai egongo. Urte bat pasa eta gero, gure proiektua nola doan ikusi eta lokalarekin zer egin pentsatuko dugu, hau da, bertan jarraitu, handiago bat beharko dugun...
- Almazen horretan bertan bulego bat izango dugu web orriarekin lan egiteko eta beste hainbat gestio egiteko.
- Almazenaz aparte furgoneta bat erabiliko dugu biletetan lortutako gauzak elkarte handietara eramateko.
- Egin dugun proiekturako, ez dugu behar makinarik gauzak edo materialak sortzeko, gure ideian parte hartu ahal izateko behar den makina bakarra mugikorra edo ordenagailua da.
- Guk erabiliko ditugun sistema informatikoak lehen esan bezala mugikorrak, tabletak eta ordenagailuak izango dira, diru bilketak egiteko gure web orriaren bidez.
- Guk ez ditugu edukiko salmenta puntuak, bilketa puntuak baizik.
- Lortzen ditugun laguntzak (dirua, jostailuak, arropa...) hainbat elkarte ezberdinen bitartez banatuko ditugu behar dituztenentzat.

Baliabide intelektualak

- Ideia hau, eguneroko bizitzari aurre egiteko zailtasunak dituzten pestsoei bideratuta dago, hauekiko elkartasun keinu bat eginez.
- Ez dugu behar inolako egile eskudiberik gure proiekturako.
- Lortzen ditugun baliabide guztiak lehen esan bezala, beste elkarte batzuen bidez banatuko ditugu (Caritas, Cruz Roja, Zaporeak).
- Gure bezeroen banku kontuak eta diru laguntzak emateko beste hainbat datu, guztiz seguru mantenduko ditugu bezeroaren pribatutasunerako.
- Denborarekin, gure taldeak handiagotzeko aukerak izan ditzazke, baina momentuz, bitartekari lanak egitea izango da gure helmuga.

Finantza-baliabideak

- Gure kasuan behar ditugun eskudiruak, jendearen bitartez lortuko ditugu.